




XXXVI. LIZARDI SARIA. 2017

SASIOLAKO ERROTARIA

Ramon OIasagasti Aiestaran

erein **AUSKA** 

SASOLAKO ERROTARIA

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Liburu honek Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2018ko martxoan

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

Azala eta barruko irudiak:

Xabier Sagasta

© Ramon Olasagasti Aiestaran

© EREIN. Donostia 2018

ISBN: 978-84-9109-293-3

L. G.: SS-352/2018

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

RAMON OLASAGASTI AIESTARAN

SASIOOLAKO ERROTARIA

Marrazkiak: Xabier Sagasta

XXXVI. LIZARDI SARIA. 2017

erein **AUSKA** 



ramonolasagasti

idazlea

Ramon Olasagasti Aiestaran Berrobin jaioa da, 1972an. Kazetaritza ikasi zuen Leioan, eta *Euskaldunon Egunkarian* eta *Berrian* jardun zuen lanean, hainbat sailetan. Mendia izan du beti gogoko eremua, eta mendiko informazioa jorratu izan du prentsan. Mendiari lotuta argitaratu ditu hainbat liburu, *Mendiminez* biografia liburua; *Josune Bereziartu, hatz puntak*; *Hiru pauso, hiru norabide*; *Sei arrasto Eskandinavian* besteak beste.

Gaur egun, itzulpengintzan egiten du lan. Haur literaturako zenbait ipuin ere eman ditu argitara: *Sugaar* (Lizardi Saria, 2014) eta *Ipurtargien herrian* (2014).



xabier^{marraskilaria}sagasta

Xabier Sagasta Lacalle (Arrasate, 1982) marraskilaria eta arkitektoa da.

Irudikatzeari inoiz utzi ez diolarik, lanbide bilakatu zuen ikasketak bukatutakoan, ideiak komunikatzeko, iragana aztertzeko eta etorkizuna proiektatzeko eskaintzen dituen baliabide hobe ezinez ziur.

Horrela, hainbat alor jorratzen ditu bere lanaren egunerokotasunean: liburuak eta diskoak ilustratuaz batzuetan, paisaia eta arkitekturarekin lotutako proiektuetan marraskia analisi tresnatzat erabiliaz besteetan, edo komiki laburrak sortuaz bakarka zein lantaldean.

Sasiolako errotako egun beldurgarri hartaz geroztik dena aldatu zen. Nork esan behar zidan niri Mitxelko, Attor eta Ibanena horrela bukatuko zenik.

Uda amaiera eta ikasturte hasiera mugituak izan ziren gurean, baita herri osoan ere. Aitonarena aurrena, Mitxelko, Attor eta Ibanen jokaldi gaizto haiek guztiak gero, eta Sasiolakoa azkenik. Uff, oraindik ere hotzikarak sortzen zizkidan Sasiolakoa gogoratze hutsak.

Abuztua azken ostikotan zela joan zitzaigun aitona. Ustekabe samarrean. Hitz gutxikoa, serioa eta batzuetan egoskor samarra zen aitona, baina bazekien samurra izaten ere. Askok maite ninduela uste dut, inoiz halakorik esan ez bazidan ere. Sasoiko zegoela,

zerran aritzen ginen elkarrekin etxepeko garajejan, neguan sutarako egurrik falta ez zedin. Gurasoak beti lanean izaten zirenez, mendira ere haren eskutik joaten nintzen, perretxikotara, gaztainak biltzera edo, besterik gabe, egunero eguterako baserri bideetan barna egin ohi zuen bueltaxka ematera. Igandetean, berriz, bi euroko txanpona ematen zidan, beti hitz berak errepikatuz:

–Tori, Ander, goxokiak erosteko. Eta bueltak eltzetsura, txerria gizentzeko.

Aitona bizi zen artean, beti berrogei edo berrogeita hamar xentimo sartzen nituen igandero eltzetsuan, urtea joan urtea etorri, hutsik egin gabe. Bera hil eta gero, txerriak hor jarraitzen zuen, gizen-gizen, zirrikitutik txanpon bat gehiago sartzeko lekurik gabe. Ama eta aita ere aspalditik ari zitzaizkidan, ea noiz hautsi behar nuen eltzetsua. Arrazoi puska bat bazuten: bazen garaia nire altxor kutxa hura zabaltzeko. Aitonak esango zukeen moduan “txerriari labana sartzeko”. Behingoz, banekien, gainera, dirua zertan gastatu. Aitonak begi onez ikusiko zuen, seguru.

Elurretan, epelak jasota

Egun hartan, eskolara bidean nindoala, antzeman nien harpa jotzeko gogoz zetoze. Espaloiak garbituta egon arren, elur zaharra zegoen artean bazterretan, nahiz eta bi egun lehenago eroritako metro erdia ederki lurmenduta egon. Ez zen ohikoa urriaren amaieran halako elurtea botatzea. Mitxelko zetorren taldetxoaren buru, metro eta 70 zentimetrotik gorako kankailua. Attor eta Iban atzetik. Halako batean, “erasora” egin zuen oihu Mitxelkok, eta elur pilotak botatzen hasi zitzaizkidan, ezker-eskuin, gupidarik gabe.

–Baina zertan ari zarete...? –zezeldu ahal izan nuen, nolabait, bi besoekin burua babestuz.

–Isildu hadi, xaldabero –egin zuen garrasi Ibanek, eta kolkotik behera sartu zidan beste elur pilota bat.

Lurrean utzi ninduten, blai eginda eta pilotakaden kolpez eta hotzez aurpegia gorrituta. Une horretantxe azaldu zen Ainara, hura ere eskolara bidean. Apuratu egin zen itxura hartan ikusi ninduenean:

–Baina, Ander, zer gertatu zaik? –galdetu zuen, besotik heldu eta zutitzen laguntzen zidala.

–Zera, espaloian izotz beltza zegonan eta erori egin naun –erantzun nion, txamarrako elur pindarrak astinduz.

–Erori? Ikusi al duk hire burua, Ander? Aurpegia puztu-puztuta daukak? Zer izan dituk, Mitxelko eta hauek? –Alferrik ariko nintzen, Ainarak beti antzematzen zidan, ez zegoen harekin gezurretan ibiltzerik.

Lagunik onena nuen Ainara txiki-txikitatik. Neska zangarra zen, ausarta eta tolesik gabea. Gauzak ziren bezala bota ohi zituen, itzulingururik gabe. Auzoak ginen. Gure etxe multzoaren gaineko baserri batean bizi zen bera, gurasoekin eta neba txikiarekin. Lanean zaildua zegoen, ardiekin, soroan eta baratzean, eta haren beso zuztarrekin argi ibili beharra zegoen. Txikiagoak ginela, erdi jolas erdi serio, behin baino gehiagotan arituak ginen borrokan, eta ni ere mutil txikia ez izan arren, azpian hartzen ninduen beti.



“Errenditu hadi, Lizardi”, esaten zidan garaile, nire idazteko zaletasuna txantxarako hartuta, bide batez. Ainarak jenio bizia zuen nire aldean. Gelako neskarik azkarrena zen gainera, eta ordenagailuekin eta teknologiarekin inor baino hobeto moldatzen zen.

Egun hartan eskolan denak galdezka aritu zitzaizkidan: “Zer gertatu zaizu, Ander? Zer gertatu zaizu?”. Arropak lehortu arren elur lokaztuaren orbanak geratu zitzaizkidan, eta begi ondoan ubeldu batzuk atera zitzaizkidan. Denei gezur bera kontatu nien, izotzetan erori nintzela. Kattalin irakasle berriari ere horixe erantzun nion galdera egin zidanean.

–Baina, Ander, zer gertatu zaizu aurpegiari?

–Ezer ez, andereño, etxeko atarian izotza zegoen eta hankaz gora joan naiz. Gaztako ederra hartu dut!

–Esango nuke, bai –errukitu zitzaidan–; baina ondo zaude, ezta? Gurasoei deitzea nahi al duzu?

–Lasai, ez da beharrezkoa. Alferrik kezkatuko lirajteke eta ez da ezer izan –geldiarazi nuen.

–Ados, nahi duzun bezala –eman zuen amore Kattalineki, eta matematikako eskolari ekin zion. Zatikiak.

Attor, Mitxelko eta Iban elkarri kontuka sumatu nituen atzeko ilaran, barre isilean. Jolas-orduan,

Ainararekin nengoela, atzetik hurbildu zitzaizkidan, mehatxu airez. “Hara gure izotz-patinatzailea”...

–Portatu haiz, xaldabero, ez haiz oilobusti salatari bat behintzat –bota zuen Attorrek.

–Hobe duk, badakik zer gertatzen zaien salatarietara... –utzi zuen airean Mitxelkok.

–Zer gertatzen zaie? –oldartu zitzaien Ainara.

–Hi isildu hadi, Urtain, hau ez zoan hirekin eta –erantzun zion Ibanek.

Ainarak zarpatik heldu nahi izan zuen Iban, baina honek, zirauna baino bizkorragoa izaki, mugimendu azkar batez egin zion iskin. Eta Mitxelkok hizketan jarraitu zuen, lehengo lepotik burua:

–Zer gertatzen zaien salatarietara? Ezer ez, opari bat jasotzen dutela...

–Zer opari? –jakin nahi izan zuen inozo honek.

–Zer opari? Benetan jakin nahi duk, xaldabero? Sasiolan gau bateko ostatua, hango mamuarekin dantz egiteko, zer iruditzen? Baduk Sasiolako errotariaren mamuaren berri, ezta? –galdera galderaren atzetik, berriro Mitxelkok.

Banuen, bai, Sasiolako errotariaren mamuaren berri. Etxean ez genuen askorik hitz egiten Sasiolari

buruz, gaia ateratzen zen bakoitzean aitonak hitz beste egiten zuelako, baina herrian behin baino gehiagotan entzun nituen Sasiolako errota abandonatuari buruzko kontuak. Kontu ilunak, egia esan.

–Jakingo huen, duela urte batzuk zer gertatu zitzaion Zapiri, ezta? –bota zuen Attorrek gaiztoz.

Herri guztiak zekien zer gertatu zitzaion Zapiri. Gu baino hiruzpalau urte zaharragoa zen Iñigo Zapirain, *Zapi*, eta hura ere zango trabaka, hankapean eta zahagi zaku ibili izan zuten herriko batzuek. Kontua da egun batean Zapi ez zela arratsaldean etxera agertu, eta gurasoak, kezkatuta, haren bila hasi zirela, baita auzoko batzuk ere. Hiru bat orduz aztarrika haren bila ibili ondoren, Sasiolako errotan entzun zituzten haren garrasiak. Atea bota eta han aurkitu zuten, galtzak zikinduta, hitzik egiteko ere gauza ez zela. Etxekoak saiatu ziren hurrengo egunetan zer gertatu zitzaion jakiten, baina alferrik, ez zen haren ahotik hitzik atera.

Zirrara batek gorputz osoa hartu zidan, Sasiola eta hango mamuaren kontua entzute hutsarekin. Bane-kien Mitxelko, Attor eta Iban gauza zirela barrabaske-ria handienerako, eta ez nuen sutara egurrik bota nahi izan.



–Lasai, nik ez zaituztet salatuko, baina Sasiolako mamuak ez diat uste lagun handirik duenik, eta zuek ere kontuz ibiltzen ahal zarete! –erantzun nien, adore kolpe hartaz ni neu ere harrituta.

–Zer diok, memelo, berriro jaso nahi al duk? –oi-lartu zen beste behin Mitxelko.

–Ospai hemendik, nazkante alaenak! –ekin zien Ainarak, jertsearen besoak goratuz.

–Goazemak, Mitxelko –esan zuen Attorrek, lagunari besotik helduta–, begira zauzkaagu denak.

Hala zen, bai, jolastokiko neska-mutil guztiak guri begira zeuden, sesioa borrokaldian amaituko ote zen edo. Eta begira zen Kattalin irakaslea ere, ikusita-koari traza txarra hartuta.

1953ko Inozente eguna

Abenduaren 28a zen. Inozente eguna. Hobe bai, inuzentekeria batekin joan izan balitz herriko alkatea Sasiolara, baina Jatsuk, bere gaztetxo begietatik, berehala antzeman zion alkateari ez zekarrela albiste onik. Aurpegi goibela eta eroria zekarren.

–Kaixo Jatsu, zer moduz? –galdetu zion alkateak mutil kozkor herabeari.

Hamabi urte bete berriak zituen Jatsuk, 1953ko udazken hartan. Umezurztegiko haurra zen Jatsu, adoptatua. Gurasoak oso helduak zirela iritsi zen Sasiolara, bi urteko haurra zela artean. Familia osatzea eta errotaren martxari jarraipena ematea zen gurasoen nahia eta ametsa. Eta hutsune hori betetzera iritsi zen

Jatsu, umezurztegitik. Poza, arnasa berria eta bizia ekarri zituen haurrak Sasiolara.

Hamar urteren buruan, gorputza hartzen hasia zegoen Jatsu, eta lanean ere aski zaildua zegoen, errotan eta baratzean, adinean oso aurrera zihoazen gurasoei laguntzen. Aita eta ama, kontrara, zahartzen eta malkaltzen hasiak zeuden, bizialdi osoko astolanaren eta adinaren poderioz. Eta 1953ko Inozente egun hura baino pare bat hilabete lehenago, aurrena aita eta gero ama, biak oso gaixorik eraman behar izan zituzten erietxera. Aita biriketako gaixotasun batekin oso eri, eta ama burua galtzen hasita. Horregatik, alkatea ikusi zuenean, Jatsuk ez zuen susmo onik hartu.

–Zer da, alkate jauna? –galdetu zuen mutikoak, atezuan.

–Berri onik ez dugu, Jatsu –hasi zen alkatea, txapela kendu eta burua makurtuta.

–Zer gertatzen da? –urduritu zen errotarien semea, bera ere errotaria ordurako.

–Aita eta ama, zera... –Eztarriko korapiloan trabatu zitzaizkion hitzak alkateari; listua irentsi eta marranta garbituta hasi zen hizketan berriro ere–. Aita bart gauean zendu da, oso gaixo egon da azkeneko bi



egunetan, eta, zer diren gauzak, ama ere, aitarena jakin izan balu bezala, goizaldean hil da.

Sasiolako hormen kontra bermatutako errotarri zaharren antzera, mutu eta abailduta geratu zen Jatsu. Isiltasun hauskor hartan, errota zahar maitearen lantua zerion abenduko eguarte hotz hari: “Negar egiten dezu aleak txetxean, ni ere triste nabil zutaz oroitzean”. Jatsuk barrurantz egin zuen negar. Ez zuen malkorik isuri alkatearen eta hari laguntzera etorritako herriko beste pare bat gizonen aurrean. Nahigabeak ito zizkion negarrak eta atsekabe guztiak.

–Ondo al zaude, Jatsu? –galdetu zion alkateak zer esan garbi ez zekiela, haurrak zirkinik egiten ez zuela ikusita.

–Bai, ondo nago, eskerrik asko –erantzun zien Jatsuk, soraio, begirada galdua–. Orain barkatuko didazue, baina babarrunak egosten dauzkat sutan. Amak beti gauza bera esaten dit, beno, esaten zidan: zaintzeko ondo eltzekoa.

Eta Jatsu, nork zaindu behar zuen aurrerantzean Jatsu? Seme bakarra izanik, ondoko herrian bizi ziren osaba-izeba batzuek eskaini zioten haiekin bizitzera joateko, baina Jatsuk ezetz. Udalak ere esan zion bilatuko

ziotela etxeren bat, mantenua gutxienez emango ziona. Baina Jatsuk ezetz esan zien eskaintza haiei guztiei. Moldatuko zela, aita eta ama gaixorik izan ziren bi hilabete haietan moldatu zen bezalaxe. Sukaldean bazekiela eta errotako lanetan ere ikasia zegoela. Inork ez zuen zalantzan jartzen hori, mutil zalua eta bizkorra baitzen Jatsu. Bera arduratzen zen irina herrian banatzeaz eta bestelako hainbat lanez. Eta hamabi urterekin, babak eltzetik ateratzen asmatuko zuen, asmatuko zuenez.